

2016/02/23ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 23/02/2016.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
Aitor Zubizarreta Alegria  
Maider Landa Ruiz de Azua  
Aintzane Agiriano Errasti  
Edorta Barandiaran Garcia  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2016ko otsailaren 23an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaietarako hitz egiteko. Ezingo zela etorri jakinarazi zuen Maite Uribe.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 23 de febrero de 2016, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramón Zubizarreta Alegria , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusa su asistencia Maite Uribe.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2015-11-19, 2015-11-24, 2015-11-27, 2015/12/15 eta 2016-01-21.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2016ko urtarrilaren 18ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Era berean, bere jabetzatik Mazmelako errepidera doan bidea ofizioz ikertzeko espedienterik ez hasteko Udalbatzarrak hartutako erabakiaren aurka Javier Errastik jarritako errekurtsua dela-eta Administrazioarekiko Auzitegiko Donostiako 2. epaitegiaren epaiaren berri eman du Alkateak Epaian onetsi egiten da Errasti jaunak jarritako errekurtsua, eta Udala behartzen da aipatutako bidearen titularitatea ofizioz ikertzeko espedientea hastera.

## **3.- BAKE EPAILEA AUKERATZEKO OINARRIAK ONARTZEA.**

Gobernu eta Finantza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, bertaraturako kide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

***Lehenengoa.-*** *Bake Epaille Titularra eta Ordezkoa lehiaketa bidez aukeratzeko deialdia arautu behar duten oinarriak onartzea.*

***Bigarrena.-*** *Lehiaketarako deialdia egitea, eta horretarako iragarkia jartzea Udaletxeko iragarki oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Eskoriatzako Bake Epaitegian.*

***Hirugarrena.-*** *Hautaketa Epaimahaiko kide izateko ondorengo zinegotziak izendatzea:*

- Mahaiburu: Alkatea edo berak eskuordetutako zinegotziren bat.
- Mahaikideak: Josu Ezkurdia eta Rafael Bernal
- Idazkaria: Udalekoa edo berak eskuordetutako funtzionario bat.
- Epaimahaiak Leintz Udal Euskaltegiaren laguntza izango du euskararen ezagutza neurtzeko.

## **4.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIAK %1 IGOTZEA 2016KO EKITALDIAN.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

2016ko ekitaldirako, eta urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Udal honen zerbitzura ari diren langileen ordainsariak %1eko igoera izatea 2015eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneousotasuna lortuko da langileen kopuruari zein antzintasunari begira, 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.

#### **5.- URA ETA ESKORIATZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.**

URAK erakundeak hirugarrenei ur hornidura emategatik kanona kudeatzeko Udal honekin sinatzeko proposatzen duen hitzarmenaren edukia ikusi da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Proposatutako hitzarmena sinatzea.

Bigarrena.- Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkaritzan sinatu dezan.

#### **6.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2015eko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**7.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEKO 9. ERANSKINA “KIROL INSTALAZIOAK ETA KIROL ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIKO TASA” ALDATZEARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.**

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantzako 9. eranskina “Kirol instalazioak eta kirol zerbitzuak erabiltzeagatiko tasa” aldatzeko Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak, Kultura, Euskara eta Kirolak azpibatzerdeak eskatuta, egindako proposamena ikusirik, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzordekide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Kiroldagiko abonuan ondorengo hobaria sartzeko proposatutako aldaketa onartzea:

- 80 urtetik gorakoak: %100

**Bigarrena.-** Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egingo ez balitz.

**8.- 2016-2019 DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Rafael Bernal, Aitor Zubizarreta, Aintzane Agiriano eta Edorta Barandiaran abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa.

**Bigarrena.-** Plan hori jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

### **9.- LANDA GUNETAKO UR HORNIDURA SARE EZ PUBLIKOEN KONPONTZE ETA MANTENTZE LANAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Landa gunetako udalez kanpoko ur hornidura sistema kolektiboen konpontze eta mantentze lanak finantzatzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

### **10.- DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAREN ETA BERA OSATZEN DUTEN ZENBAIT UDALEN ARTEKO HITZARMENA KANPOKO ARGITERIA PUBLIKOAREN INSTALAZIOAK BERRITZEKO BATERAKO PROIEKTUA GARATZEKO, ENERGIA DIBERTSIFIKATU ETA AURREZTEKO INSTITUTUAK FINANTZATUTA.**

Debagoieneko Mankomunitateak hainbat lan egiten dihardu energiaren arloan. Besteak beste, eskualdeko industriaren arloan energiaren eremuan balio-katearen azterketa egin da, baita Mankomunitatearen Arrasateko egoitzan energia-diagnosia ere, eta ondorioz elektrizitatearen hornikuntza eta kontsumoa zuzentzeko neurriak hartu dira.

Ildo horretatik, Mankomunitateak zera planteatu zien bera osatzen duten udalei: eskualdeko udalerrietan kanpoko argiteriaren instalazio publikoak berritzeko baterako proiektu bat garatzeko aukera. Horren aldeko jarrera teknikoa hartu ondoren, udalerrri bakoitzean aurreikusitako jarduketan deskribapen-txostenak egin dira. Azkenik, aurreikusitako jarduketak

eskualde mailako proiektu bakar batean batu dira, eta proiektua elkarrekin idatzi dute udal parte-hartzaileek eta Debagoieneko Mankomunitateak.

Orain, proiektu hori udaletan kanpoko argiteriaren instalazioak berritzeko laguntza-programaren deialdira aurkeztea proposatu da; Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) 2015eko apirilaren 28an egin zuen horretarako deialdia eta 2015eko maiatzaren 5ean argitaratu zen BOEn.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak finantzatutako kanpoko argiteriaren instalazioak berritzeko baterako proiektu bat garatzeko proposatutako hitzarmena sinatzea Debagoieneko Mankomunitatearekin. Hitzarmenak honako baldintza hauek ditu:

*LEHENA.- Debagoieneko Mankomunitatearen Estatutuen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, non aipatzen baita bere xedea, Hitzarmen honen sinatzaileek jarduketa hau aipatu artikulua hirugarren atalean kokatzea erabaki dute, hor berariaz sartzen baita "udal-ekintza zehatzen koordinazioa", jarduketa hau babesten duena, honetarako aldez aurretik dagozkion udal-erabakiak hartu direlarik.*

*Ondorioz, aurretik IDAEk proiektua onartu eta finantzatzea ebazten badu, Mankomunitatea arduratuko da elkarrekin idatzitako Hitzarmen hau izenpetzen duten udaletan kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko proiektua gauzatzeaz, bere aurrekontu osoa 1.719.552 €-koa izanik, honako xehetasunaren arabera udalerrika edo loteka:*

- Aretxabaleta: 244.541 €.
- Arrasate: 548.638 €.
- Bergara: 449.849 €.
- Eskoriatza: 405.133 €.
- Oñati: 71.391 €.

*Horretarako, sinatzen duten udalek baimena ematen diote Mankomunitateari proiektuan inplikaturiko udal-instalazioetan —berorien titulartasuna aldatu gabe— aipaturiko proiektua zuzen gauzatzeko beharrezko jarduketak egin ditzan, baita horien garapenerako beharrezko neurriak hartu ere.*

*BIGARRENA.- Idatzitako proiektua kudeatzeari eta, hala badagokio, gauzatzeari dagokionez, Debagoieneko Mankomunitateak honako lan hauek egingo ditu:*

1. *Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren aurrean aurkeztea Hitzarmen hau sinatzen duten Udalek eta Mankomunitateak batera garaturiko proiektua.*

2. IDAEk onartzen badu aurkezturiko proiektua, aipaturiko onarpenaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera gehienez ere 3 hilabeteko epean, proiektua loteka gauzatzeko dagokion kontratazio-espeditatearen izapideak hasiko ditu Mankomunitateak, lote bakoitza udalerrri bakoitzean aurreikusitako jarduketari dagokiolarik.
3. Eraikuntza obretako osasun eta segurtasun araudi minimoa jasotzen duen 1997/1627 Errege Dekretuaren ildotik, Mankomunitatea promotore gisa arituko da.
4. Proiektua esleitu ondoren, dagokion mailegua izenpetuko du oinarri erregulatuarekin eta IDAEk egindako deialdian ezarritako baldintzen arabera.
5. Mankomunitateak, inplikaturiko udalen laguntzaz, proiektuaren garapena ikuskatuko du eta dagozkion fakturak ordainduko ditu, gehienez ere urtebeteko epean amaitu behar direlarik lanak, kontratua sinatu ondoren.
6. Mankomunitateak udalei eskatuko dizkie IDAEekin kontraturiko maileguaren amortizazioei aurre egiteko dagozkion ekarpenak, eta dagozkion ordainketak egingo ditu mailegu-kontratuan hitzarturiko epeetan.
7. Mankomunitateak IDAEren deialdiekin bateragarri diren beste laguntza-deialdi batzuk aztertuko ditu, eta beharrezko gestioak egingo ditu horiek eskatzeko eta, onartzen badira, gero kudeatzeko. Dena den, laguntza horiek IDAEekin hitzarturiko mailegua amortizatzeko erabiliko dira.

*HIRUGARRENA-* Proiektuan parte hartzen duten Udalek, bestalde, honako lan hauek egingo dituzte:

1. Mankomunitatearekin kolaboratuko dute beren udalerrian kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko lanak egiteko beharrezko laguntza teknikoa emanez, gai honetan adituak diren teknikarien dedikazioaren bidez.
2. Proiektuan parte hartzen duten Udaletako bakoitzak dagozkion ekarpenak ordainduko ditu bere udalerrian gauzaturiko inbertsioen arabera, IDAEekin kontraturiko maileguari dagozkion amortizazioak egin ahal izateko Mankomunitateak. Horretarako, IDAEren behin betiko ebazpenaren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, emandako maileguaren zenbatekoa eta baldintzak ezagutzen direnean, Mankomunitateak proiektuan parte hartzen duten Udal bakoitzarekin hitzarmen bat sinatuko du egin beharreko ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz.
3. Proiektuan parte hartzen duten Udalek, hornikuntza eta instalazioaren harrera egin ondoren, egindako instalazioaren jabe izango dira eta beharrezko mantentze-lanak beren gain hartuko dituzte.

4. Kontratuan ezarritako berme epean, Mankomunitateak kudeatuko ditu enpresa esleipendunak konpondu beharreko aipatu epean sortutako arazoak.

*LAUGARRENA.-* Proiektuaren edozein aldaketak dagokion Udalaren aurretiazko baimena beharko du. Aldaketa horrek gastua gehitzea baldin badakar, instalazioaren jabea den Udalak Mankomunitateari ordaindu beharko dio gehikuntza hori kontratistari ordaintzeko data baino lehen.

*BOSGARRENA.-* Hitzarmen hau indarrean izango da bertan aurreikusitako jarduketak amaitu arte.

*SEIGARRENA.-* Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta beronen interpretazio eta garapena herri-administrazioen arteko hitzarmenei aplikatzen zaien administrazio-ordenamendu juridikoaren arabera arautuko dira.

*Hitzarmena interpretatu eta betetzerakoan sortzen diren auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumende eta erabakipean jarriko dira.*

**Bigarrena.-** Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkartzan sinatu dezan.

**\* ERABAKIA HARTU BAINO LEHEN AITOR ZUBIZARRETAK EGINDAKO GALDEREN LABURPENA:**

*Aitor Zubizarretak esan du bi galdera egin nahi dituela aztergai duten proposamenaren gainean: 2011n herriko zenbait gune eta auzotan argiteria aldatu zenez, galdetu du orain egin nahi denak harekin zerikusirik baduen. Eta, kontuan izanik hitzarmenean mailegu batez hitz egiten dela, galdetu du ea zer eragin izango duen Udalaren zor tasan eta nola finantzatu behar den hori Eskoriatzakarako hain diru kopuru handia izanik.*

*Josu Ezkurdiak erantzun dio proiektua 2011n egindakoaren jarraipena dela, argiteria guztia batera aldatzeko aukera ikusi dela, aldika egitera itxaron gabe. Maileguari buruz, jakinarazi dio mailegua eskatu eta zorpetzen duena Mankomunitatea dela, Udalak dagozkion ekarpenak egin beharko dizkiola Mankomunitateari, eta espero duela ekarpen horiek Energiaren Euskal Erakundeak ematea espero den diru laguntzarekin eta Udalak energia kontsumoan aurreztuko duenarekin finantzatuko direla.*



*Idazkariak gehitu du, hala ere, mailegua eman ez gero eta proiektua gauzatu, Udalak eta Mankomunitateak ekarpenen zenbatekoak eta epeak adostu beharko dituztela, eta horri buruzko edozein erabaki Udaltzarrak hartu beharko duela, bera baita konpromiso-kredituak onartzeko eta hurrengo ekitaldietako aurrekontuak konprometitzeko organo eskuduna.*

## **11.- INFOPORT UDAL TRESNERIA LAGATZEKO ARAUDIA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Testua irakurrita eta aztertuta, Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udaltzarkide guztiek alde bozkatuta, Udaltzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Udal jabetzako INFOPORT tresneria lagatzeko prozeduraren araudia hasiera batean onartzea.

**Bigarrena.-** Araudi hori jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak egin dezan. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udaltzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, araudia behin betiko onartutzat joko da erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikulua.

## **12.- HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

2015eko urriaren 20an hainbat udal eraikin garbitzeko zerbitzua zenbait esleipen irizpide erabilita prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteak hasteko erabakia hartu zen. Kontratuaren lehenengo urteko lehiaketa aurrekontua, BEZ barne, 150.000 eurokoa da.

Era berean, kontratua aratu behar zuten administrazio baldintzen agiria eta baldintza teknikoena onartu ziren eta dagokion gastua baimendu zen.

Eskaintzak aurkezteko ezarritako epean ondorengo enpresek aurkeztu zituzten beraienak:

- DISTRIVISUAL S.L.
- HEMEN GARBIKETAK S.L.U.

Balio-iritziazen bidez ebaluatu daitezkeen esleipen irizpideak baloratuta, ondorengo puntuazioak eman zaizkie enpresa bakoitzari:

- HEMEN GARBIKETAK S.L.U. 14,5 puntu
- DISTRIVISUAL S.L. 6,5 puntu.

Kontuan izanik DISTRIVISUAL S.L. enpresak ez dituela 9 puntu lortu (6,5 lortu ditu) TXOSTEN TEKNIKOaren atalean, eta 8. baldintzan jartzen duela aipatutako puntuazio hori gutxieneko dela kontratazio prozesuan aurrera jarraitu ahal izateko, DISTRIVISUAL S.L. enpresa prozesutik KANPO UZTEA erabaki zuen Kontratazio Mahaiak, eta ez ditu euren proposamen ekonomikoak irekiko.

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak lortutako puntuak honako hauek dira:

- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 70 puntu
- TXOSTEN TEKNIKO: 14,5 puntu
- HOBEKUNTZAK: 8 puntu
- GUZTIRA: 92,5 puntu

Balorazioak baldintza agirian ezarritako esleipen irizpideen arabera egin ondoren, kontratua HEMEN GARBIKETAK SLU enpresari esleitzea proposatu du Kontratazio Mahaiak.

Joan zen otsailaren 17an errekerimendua egin zitzaion HEMEN GARBIKETAK SLU enpresari hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen zuen biharamunetik kontatuta, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, derrigorrezko aseguru sinatuta duela eta esleipen prezioaren, BEZ gabe, ehuneko bosteko (%5) behin betiko bermea jarri izana egiaztatzeko dokumentuak aurkezteko.

Kontuan izanik oraindik ez dela igaro emandako 10 egunetako epea eta ezin izan duela dokumentazio hori aurkeztu, aho batez ERABAKI DA gaia mahai gainean uztea.

### **13.- GAI ZERRENDAN HONAKO GAIA SARTZEA BERRESTEA: UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEAGATIK (2016KO URTARRILAREN 16-TIK**

**OTSAILAREN 15-ERA) HEMEN GARBIKETAK ENPRESAK AURKEZTUTAKO  
FAKTURA ORDAINTEKO AGINDUA.**

Aho batez erabaki da gaia gai zerrendan sartzea.

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2016ko otsailaren 15ean egindako 10 faktura aurkeztu ditu (160240 zenbakitik 180249 zenbakira), 2016ko urtarrilaren 16tik otsailaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoak.

Otsailaren 19an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, HEMEN GARBIKETAK SLU) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

- 2016ko urtarrilaren 16tik otsailaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruz 2016ko otsailaren 15ean HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak egindako fakturak (160240 zenbakitik 160249 zenbakirakoak) ordaintzeko agintzea.

**14.- CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES FERREIRA S.L. ENPRESAK  
EGINDAKO ESKAERA INTXAURTXUETA 35, BEHEA HELBIDEKO ETXEBIZITZARI  
ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU BEHIN BETIKO  
KALIFIKAZIOA EMATEKO.**

Jose Serafin Ferreira Gonçalves jaunak Intxaurtxueta 35, behea helbidean sustatutako etxebizitzari erregimen bereziko udal etxebizitza tasatu behin betiko kalifikazioa emateko eskatu du CONSTRUCCIONES Y EXCAVACIONES FERREIRA S.L. enpresak.

Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**2016/02/23**  
**Osoko Bilkura**  
Pleno ordinario

Jose Serafin Ferreira Gonçaves jaunak Intxaurtxueta 35, beheko helbideko lokalean sustatutako eta Nerea Asensio Iriarte arkitekto tekniko andreak egindako eta 2014/12/16an bisatutako proiektuaren arabera egokitutako etxebizitzari ERREGIMEN BEREZIKO UDAL ETXEBIZITZA TASATU BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA ematea eranskinean jasotzen diren zehaztapenekin.

### **ERANSKINA**

#### **SUSTAPENAREN EZAUGARRIAK:**

- *SUSTATZAILEA: JOSÉ SERAFIN FERREIRA GONÇALVES*
- *KOKAPENA: Intxaurtxueta 35, beheko solairua, esk.*
- *ETXEBIZITZA MOTA: Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatua.*
- *SUSTAPEN MOTA: lokal bat etxebizitzarako egokitzea.*

#### **SUSTAPENENKO ELEMENTUAK**

1. *Etxebizitza kopurua: 1*
2. *Horri atxikitako garaje kopurua: 0*
3. *Atxikitako trasteleku kopurua: 0*
4. *Atxiki gabeko garaje kopurua: 0*
5. *Zozketaz esleitzeko etxebizitza kopurua: 1*
6. *Zozketaz esleitzeko minusbaliatuentzako egokitutako etxebizitza kopurua: 0*

#### **BAIMENDUTAKO LAGAPEN FORMULA**

*Osoko jabetza edo erosketa-aukerarekin alokairua.*

**OSOKO JABETZAN EMANEZ GERO BAIMENDUTAKO GEHIENEZKO SALMENTA PREZIOAK (BEZ GABE).**

*Intxaurtxueta 35, beheko solairua, eskuinean dagoen lokaleko etxebizitza. Azalera erabilgarria: 61,16 m<sup>2</sup>: 120.082,00 euro*

**EROSKETA-AUKERAREKIN ALOKAIRUAN EMANDA**

*Urteko errenta ezingo da izan baimendutako gehienezko salmenta prezioaren % 5a baino handiagoa.*

*Kontraprestazioa, iraupena eta salmentarengatik egin beharreko kenketak: Babes ofizialeko etxebizitzak erosketa-aukerarekin alokatzeari buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko abenduaren 12ko Aginduan ezarritakoa jarraituko da (251. EHAA, 2012ko abenduaren 28koa).*

**ERREGIMENAREN IRAUPEN EPEA**

*Iraunkorra.*

**15.- 2016. URTEAN ESKORIATZAN GARATUKO DIREN KULTUR PROGRAMA ETA JARDUERETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek dute Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Hitza emanda, ondorengoek hitz egin dute:

Edorta Barandiarán: gure taldeak aurka bozkatu behar du, ez gaudelako ados diru laguntza kalkulatzeko aurreikusten den formularekin. Uste dugu bere garaian esan zenaren aurka, formula horrekin ez dela egongo eskaera gehiago, baizik eta departamentuko teknikariek (kultura, euskara eta gazteria) ere esaten dutenez, eskaera gutxiago egongo direla. Eta hori diot, eskaera bat balin badago, oraingo formularekin bakarrik % 50a bermatzen delako, % 20a autofinantzatua izan behar delako (eta hori batzuetan zaila izan behar da), eta gainerako % 30a batzordearen esku gelditzen delako. Badirudi, diru laguntzak nori eman kontrolatu nahi dela,

batzordearen esku uzten baita % 30 hori eman edo ez. Gainera, % 30 hori emateko edo ez baloratzen diren kontuak uste dugu baloratzen direla puntuak ematerakoan.

Alkatea: ez dugu errepikatu behar batzordean eztabaidatu zena. Guk uste dugu aukera gehiago izango direla. Gero, horrela ez bada, ikuste badugu oker geundela, ba, aitortuko dugu eta zuzenduko dugu datorren urterako. Benetan uste dugu aukera gehiago egongo direla, eta interesa duen edonok bere proiektua proposatu eta eskatu besterik ez duela izango. Guretzat lehen esperientzia izan behar da, uste dugu egokia dela planteatzen dugula, eta errealitatea besteren bat baldin bada, gure akatsa onartuko dugu, baina, aukera gehiago izatea nahi dugu.

Edorta Barandiaranek esaten du harritu egiten duela, eta kezkatzen ere bai, teknikari guztiak aurka egotea.

Alkatea: teknikariek, gustatu edo ez, guk markatutako irizpide politikoak bete behar dituzte; batzuetan ados egongo dira, eta beste batzuetan, ez; baina, horretarako daude. Normalena lana taldean egitea da, baina, ez da ahaztu behar guk, politikook, irizpideak ezartzeko gaudela, azken finean, erantzukizuna ere gurea delako. Beharbada, lehendik hartutako eta urteetan zehar errepikatzen diren jardunbideekin lan egitera ohituta gaude, baina, kontuan izan behar da aldaketa guztiak kostata izaten direla, eta uste dugu egitea beharrezko dela. Berriz ere esango dut, oinarri hauekin hanka sartzen baldin badugu, aitortuko dugu.

Aitor Zubizarreta: nik ez dut inon ikusi diru laguntzaren % 30a irizpide pertsonalen esku gelditzea. Batzorde baten esku gelditzea % 30 horri buruzko erabakia jardura batek sustatzen duen edo ez esateko, ez; hori irizpide pertsonaletan oinarritzea da. Eta zerbait erreklamatu baldin badugu, irizpideak objektiboak eta ez pertsonalak izan behar direla da. Irizpide pertsonalak baldin badira, irizpide horiek konbentzitzen dituztenek beteko dituzte, eta diru publikoarekin beste irizpide batzuk erabili behar dira, irizpide objektiboekin; beste kontu bat da horiek guri gustatu edo ez. Eskatzaileak jakin behar du nola jokatu behar den berarekin, zeren arabera baloratu behar den bere eskaria, zer oinarri izango den diru laguntza emateko edo ukatzeko. Ez dugu % 30a balorazio pertsonalen esku.

Alkatea bere proposamenean berresten da, eta baita ere bide honekin probatzea behar dutela.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da.

Egindako proposamenaren arabera, eta IRABAZIko zinegotzia abstenituta, bertaratutako BILDUko hiru zinegotziek aurka bozkatuta, eta gainerako udalbatzarkideek alde (EAJ-ko 5 eta EEE-ko 1), Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU.

**Lehenengoa.-** 2016. urtean Eskoriatzan garatuko diren kultur programa eta jardueretarako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

## **16.- ERAKUNDE ADIERAZPENA SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAZ DEMOKRATIKOA ALDARRIKATU ZENENKO 40. URTEURRENA BETETZEN DENEAN.**

Guztiek ezagutzen dute adierazpenaren testua.

Rafael Bernalek proposatuta, xedapen zatian puntu bat gehiago sartzeari erabaki da: otsailaren 27an Saharako bandera udaletxeko balkoian jarrita egotea.

Ondoren, bozkatu egin da, eta Udalbatzarrak, aho batez, ondorengo erakunde adierazpena onartzea erabaki du:

*EL 27 de febrero de 2016 se cumple el 40º aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharaui Democrática y el Ayuntamiento de Eskoriatza quiere sumarse a este acontecimiento histórico y demostrar un año más su firme compromiso con el Pueblo Saharaui. Las lluvias torrenciales caídas en octubre de 2015 en los campamentos de población refugiada saharauí han afectado a más de 90.000 personas, 25.000 de los cuales han perdido sus hogares y se han quedado sin alimentos, según denunció la [Agencia de las Naciones Unidas para los Refugiados \(ACNUR\)](#).*

*Diversas investigaciones llevadas a cabo por el Instituto Hegoa de la UPV-EHU y la Sociedad de Ciencias Aranzadi, con el apoyo de Euskal Fundazioa, han aportado nuevas pruebas sobre desapariciones forzadas y bombardeos a la población civil saharauí a manos del gobierno de Marruecos. Además, estas investigaciones están siendo útiles en la investigación de la querrela por genocidio contra el Pueblo Saharaui y en las demandas de verdad, justicia y reparación.*

*Por todo ello, el Ayuntamiento de Eskoriatza manifiesta lo siguiente:*

- *Reafirma su reconocimiento al legítimo gobierno de la RASD y al Frente POLISARIO y manifiesta, una vez más, el derecho de autodeterminación que legalmente asiste al Pueblo Saharaui. Asimismo le pide al Gobierno de España que le dé el estatus diplomático a la Representación del Frente POLISARIO en España, único y legítimo representante del Pueblo Saharaui, reconocido así por la ONU.*
- *Insta al Gobierno de España y a la comunidad internacional a que promuevan todas las iniciativas políticas que sean necesarias para lograr una solución justa y definitiva, mediante la celebración de un referéndum, conforme a las resoluciones de Naciones Unidas.*

- *Insta a las autoridades marroquíes a que cesen las persecuciones contra los y las activistas saharauis de derechos humanos, a que liberen a los presos políticos saharauis y esclarezcan el destino de más de 400 saharauis desaparecidos.*
- *Insta al Estado español a que asuma su responsabilidad histórica y trabaje activamente dentro de la Unión Europea y aproveche su presencia en el Consejo de Seguridad de Naciones Unidas para que la MINURSO vea ampliado su mandato a la vigilancia de los derechos humanos en el Sáhara Occidental.*
- *Se reafirma en su compromiso de trabajar tanto en los campamentos de población refugiada en Tinduf (Argelia), como en los territorios ilegalmente ocupados por Marruecos como muestra del apoyo mayoritario de la sociedad vasca a la legítima lucha del Pueblo Saharaui por su libertad.*
- *Agradece sinceramente la colaboración desinteresada y la generosidad de los ciudadanos y las ciudadanas vascas que hacen posibles proyectos de cooperación con el Pueblo Saharaui, tales como la Caravana vasca solidaria, Vacaciones en Paz, etc.*
- *Mantener izada la bandera Saharaui en el balcón principal de la Casa Consistorial durante el día del 27 de febrero.*

#### **17.- GIZARTE LARRIALDIRAKO ETXEBIZITZA ALDE BATERAKO LAGATZEKO ERABAKIA BERRESTEA.**

Bertaratutako udalbatzarkideek aho batez erabaki dute Integrazio eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2016ko otsailaren 11n egindako bilkuran larrialdietarako etxebizitza alde baterako lagatzeko hartutako erabakia berrestea.

#### **18.- JUBILATUEN ETXEO TABERNA-SALOI ZERBITZUA USTIATZEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2012ko otsailaren 16ko bilkuran hartutako erabakiz, Juan Luís Eraña Altuna jaunari Olazar Jubilatu Etxeko taberna ustiatzeko eta erabiltzeko kontratua esleitu zion. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa izan zen eta 2014ko martxoaren 7an beste 2 urterako luzapena eskatu zuen.

Kontratu administratiboaren 4. artikulua araberak, kontratuak 2 urteko indarra izango du formalizatzen den egunetik kontatzen hasita, hau da, 2012ko martxoaren 1etik. Epe hori 2 urtetako alditan luzatu ahal izango da, gehienez ere 20 urtera arte, eta betiere, alde biek idatziz eta berariaz horrela adierazten badute. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikulua araberak.



Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua 2 urterako luzatzea. Horretarako, honako arrazoiak eman ditu: esleipendunak eskaera idatziz egin du, eta Udalak Gizarte Zerbitzuen bitartez esleipendunak oinarritzko bete beharrak bete dituela egiaztatu du.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikulua arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Horren arabera, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorritik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Olazar Jubilatu Etxeko taberna ustiatzeko eta erabiltzeko kontratua 2 urtez luzatzea, baldintza agiriko IV. artikulua eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Aurrez esandako luzapena gauzatzeko Udalak, lokalak esleipendunaren esku uzteaz gain, Taberna ustiatzeko beharrezko tresnak ere bere esku jartzen ditu.

**HIRUGARRENA.-** Esleipendunak ez du inolako preziorik ordainduko ustia-keratagatik Eskoriatzako Udalarri, baina, kontraprestazio bezala salgaiak merkeago izango ditu pentsiodunentzako eta beheko solairuan dauden komun publikoak zaindu beharko ditu.

## **19.- ESKORIATZAKO EH BILDU UDAL TALDEAK ESKORIATZAKO EUSKAL PRESO POLITIKOEN LAGUNEN IZENEAN AURKEZTEN DUEN MOZIOA.**

Bere taldeak Eskoriatzako Euskal Preso Politikoen Lagunen izenean aurkeztu duen mozioa irakurri du Aitor Zubizarretak .

*Eskoriatzako udal batzari eskatu nahi diogu, sakabanaketa politikaren ondorioz, presoek, senideek eta lagunek –bereziki Eskoriatzako Iparragirre eta Guenetxea sendiek- pairatzen duten sufrimendua aintzat hartzea, eta horren aurrean jarrera bat agertzea. Izan ere, kolektibo horrek giza-eskubideen gaineko hitzarmena urratzen duen*

*espetxe politikaren ondorioak jasaten ditu, eta bidegabeko sufrimendua eragiten die kide orori.*

*Amnistia International moduko erakunde errespetagarriak, urtero plazaratzen duen txostenen bidez adierazi du presoen sakabanaketak arauak urratzen dituela. Hain zuzen ere, nazioarteko arauetan jasota dauden oinarrizko eskubideekin talka egiten duelako. Horrela baieztatu zuen Europako Giza Eskubideen Auzitegiak “ Khodorkovskiy and Lebedev vs Russia” izeneko epaiarekin:*

*“Presoak senideengandik urruntzeak Europako Giza eskubideen hitzarmeneko 8.*

*Artikuluua urratzen du”. Hortaz, Espainia eta Frantziako gobernuek aplikatzen duten sakabanaketa-politikak honako guztia dakar:*

*- Presoen bakartzea eta inkomunikazioa; baita senitarteko zein inguru sozial eta kulturaletik deserrotzea.*

*- Senide eta adiskideek urteko milaka eta milaka kilometro egitera behartuta egotea, dela autoz edo bestelako garraiobideez. Eskoriatzako presoek kasuan, senideak derrigor 22.000km inguru egin behar dituzte, eite guztietako istripuak izateko arriskupean egonik. Era berean, horrek guztiak gastu ekonomiko izugarria dakar eta familia guztiek ezin diote gastu horri aurre egin. Presoei bisitak egiteak urtean 15.000€ inguruko gastuak eragiten ditu eta sarri senide, lagun eta auzokideen elkartasunari esker egin behar izaten diote aurre.*

*- Harremanik gabeko denboraldi luzeak. Mugikortasun arazoak dituzten senideek, adineko pertsonak edota adingabeek, elkarrengandik banatzen dituzten distantziaren ondorioz, denbora luze, kasu batzuetan betiko, igarotzen dute beraien senide edo laguna ikusi gabe. Eskoriatzako senideek kasuan, jakina da, gurasoen adinaren ondorioz urtean bisita bakarra egiten diotela beraien alabari. Eta ziurrenik egoera ez dela hobera joango. Aurrez azaldutako guztiak, eta bestelako bidegabekeria batzuk, adibidez, ikasketak egiteko zailtasunak, presoek sufrimendua areagotzen du. Baita senideena eta hurbilekoena ere, dispertsio politikaren zigorra bidegabeki eta zeharka sufritu behar dute eta.*

*Horregatik guztiagatik, mozio honen bidez, herritarrak kontzientziatu nahi ditugu pertsona guztiei zor zaizkien oinarrizko eskubideei buruz, espetxeetan dauden Euskal Preso Politikoena barne, eta batez ere, Eskoriatzako herritarra den Marixol Iparragirrenen inguruan.*

*Azkenik, presoei eta beraien senideei ezarritako aparteko zigorrarekin amaitzeko sakabanaketa bertan behera uztea exijitzen dugu, eta nola ez, preso ororen Euskal Herriratzea. Era horretan, izugarrizko sufrimendua eta hainbat zauritu nahiz hildako eragin dituen politika bukatutzat emango genuke. Legez dagokie euskal presoei bere jaioterrian egotea. Halaber, gizalegez dagokie euren senide eta lagun ondoan bizitzea, eta bake legez ere, euskal herritar guztiengandik gertu egotea. Sakabanaketa politika erabaki politikoa izan zen, eta zoritxarrez oraindik ere ala da. Alabaina, garai*

*berri baten atarian, bestelako erabaki batek hainbesteko sufrimendurekin amaitu behar du.*

*Beraz, eskatzen dugu testu honetan aipatu diren eskubideak betetzea eta udalbatza osatzen duten erakundeek borondatea ager dezatela gizartea kontzientziatzeko. Modu horretan, aurretik aipatutakoarekin bat eginez, Eskoriatzako udalbatzak hurrengo erabakiak har ditzan nahi dugu:*

*1- Osoko bilkura dispertsio politikaren aurka agertzea, presoek euren bizilekuetatik zein inguru sozialetik gertu diren kartzeletan egon behar dutelako.*

*2- Eska diezaietela Espainiako eta Frantziako gobernuei sakabanaketa politikarekin amaitzea.*

*3- Eska diezaietela bi estatu horien espetxe instituzioei eta Audientzia Nazionaleko kartzela zaintzako epaileari euskal presoak, eta bereziki Eskoriatzako Marixol Iparragirre beraien bizilekuetatik hurbil izateko bitartekoak martxan jartzea.*

Hitza emanda, ondorengoek hitz egin dute:

Josu Ezkurdia: lehendabizi esan nahi dut harritu egin nauela mozio hau gai zerrendan egotea. Bilduk, beste behin, mozio bat aurkeztu du inori galdetu gbe, inorekin adostu gabe. Gure asmoa mozio honetako bezalako gaiak adostea da, uste dugulako Euskal Herriko arazoek batera lan eginez konpondu behar direla. Eta, hori, nahiz eta gai askotan iritzi ezberdinak izan. Hori esanda, gu abstenitu egingo gara, uste dugulako horrelako mozioak positiboak direla, baina, Bilduk ez duenez gurekin negoziatu, ez dugu alde bozkatuko.

Aitor Zubizarreta: baimena eskatu behar da mozio bat aurkezteko? Gogoeta bat da. Nik, mozio bat aurkezteko, baimena eskatu behar dut? Baimenik eskatu ahal da saharar herriari buruzko adierazpena jorrazteko? Eta beste kontu bat, mozioa ostegunean aurkeztu zen, eta norbait etorri izan balitz eta zerbait galdetu... ba, ni prest nago. Ostegunetik inor ez da niregana etorri, eta izan duzu galdetzeko aukera. Esan nahi dut gu ere ez gaudela hitz egitera itxirik. Orduan, uste dut mozioa aurkezten duenak askatasun osoz aurkeztu behar duela. Baina, zuen baimena behar badut zuek onartu dezazuen, ba, ez dakit... Baina, guregana etortzen bazarete eta hitz egin nahi duzuela esan, bai noski!

Josu Ezkurdia: Argi gelditu da komunikazio arazoak daudela bi taldeen artean, eta baita zuek nahi dituzuen mozio guztiak aurkeztu dezakezuela ere, eta areago, hau bezala, epe barruan aurkezten

badituzue. Baina egia da ere mozioetarako gure babesba behar baldin baduzue, gurekin adostu beharko dituzuela osoko bilkura baino lehen.

Alkateak hizpidera ekarri du gai berari buruz uztaleko osoko bilkuran onartu ez zen mozioa, eta adostu ondoren, irailaren 22ko bilkuran onartu zena. Adierazi du ere Saharari buruzko adierazpena batzorde informatzailean adostu dela, eta bertarako deia egin zitzaiela talde guztietako ordezkariari.

Ondoren, eztabaidatzen jarraitu dute irailaren 22ko mozioa adostua izan edo ez. Aitor Zubizarretak esan du aztertu zen mozioa ez zela adostu, eta Alkateak, baietz.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. 4 zinegotzik alde bozkatuta (BILDUKO 3k eta IRABAZIKO 1ek), eta bertaratutako gainerako zinegotziak abstenituta (EAJ/PNVko 5 zinegotzi eta EEEko zinegotzia), mozioa onartu da.

## **20.- GALDE-ESKEAK.**

Aitor Zubizarretak esan du entzun duela motor topaketa bat antolatu behar dela eta Udalak dirua jarri behar duela horretarako, eta ikusirik aurrekontuetan ez dagoela horretarako berriazko partidari, galdetu du egia den edo ez, nork antolatzen duen, nondik datorren proposamena eta nola finantzatu behar den, laguntzarik eman behar den edo ez.

Alkateak erantzun dio egia dela topaketa hori antolatzen ari direla, proposamena motorzaleek berriazko egindakoa dela, laguntza eskatu diotela Udalari, eta jardura positiboki baloratu denez, lagunduko zaiela. Esan du gaia Garapen Ekonomikoko batzordean aztertu zela, eta jardura positiboki baloratzen dutela herrian ekonomikoki izan dezakeen eraginarengatik, eta hori dela laguntza jasotzeko arrazoia.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:35ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en las siguientes fechas: 19/11/2015, 24/11/2015, 27/11/2015, 15/12/2015 y 21/01/2016.

## **2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 18 de febrero de 2016 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

A su vez, el Alcalde informa sobre la sentencia dictada por el Juzgado de lo Contencioso Administrativo Nº 2 de San Sebastian con motivo del recurso que interpuso Javier Errasti contra el acuerdo del Ayuntamiento en Pleno denegando el inicio del expediente de investigación de oficio del camino que desde la propiedad del recurrente va hasta la carretera a Mazmela. En la sentencia se estima el recurso interpuesto por el Sr. Errasti y se obliga al ayuntamiento a iniciar un expediente de investigación de oficio de la titularidad de dicho camino.

## **3.-APROBACIÓN DE BASES PARA SELECCION DE JUEZ o JUEZA DE PAZ.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas , el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos asistentes, ACUERDA:

***Primero.-*** Aprobar la Bases que han de regir la convocatoria para la selección del Juez de Paz Titular y Sustituto a través del sistema de concurso.

***Segundo.*** Convocar el concurso mediante publicación del correspondiente a anuncio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y en el Juzgado de Paz de Eskoriatza.

***Tercero:*** Designar a los siguientes corporativos miembros del Tribunal de Selección:

- Presidente: El alcalde o concejal en quien delegue
- Vocales: Vocales: Josu Ezkurdia y Rafael Bernal
  
- Secretaria: La de la corporación o funcionario/a en quien delegue
  
- El tribunal contará con la colaboración de Leintz Udal Euskaltegia para valorar el conocimiento de euskera.)

## **4.-INCREMENTO RETRIBUTIVO DEL 1% EN EL EJERCICIO 2016 AL PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Que para el ejercicio 2016, y con efectos desde el 1 de enero, las retribuciones del personal al servicio de este ayuntamiento tengan un incremento del 1% respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2015, en términos de homogeneidad para los dos periodos de comparación, tanto en lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo, todo ello de conformidad con la posibilidad recogida en la LPGE2016.

#### **5.-CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE URA Y EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA.**

Visto el contenido del convenio que desde URAK se propone formalizar con este Ayuntamiento para la gestión del canon del agua en los suministros a terceros,

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Suscribir el convenio propuesto.

